

## AIARA

7718

**Euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzak ematea arautzen duen ordenantzari behin betiko onespena ematea.**

Euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzak ematea arautzen zuen ordenantzari hasierako onespena emateari buruzko iragarkia ALHAOn argitaratu zen, 112. zk.an, 2009ko irailaren 30ekoan.

## AYALA

7718

**Aprobación Definitiva de la Ordenanza Reguladora de la concesión de ayudas para el aprendizaje y mejora del Euskara.**

Publicado anuncio en el BOTHA nº 112 de 30 de septiembre de 2.009, referente a la Aprobación Inicial de la Ordenanza Reguladora de la concesión de ayudas para el aprendizaje y mejora del Euskera.

Jendaurrean egon den aldian inork ez duenez erreklamaziorik aurkeztu, ordenantza hori behin betiko onetsi da eta testua osoz argitaratu da ALHAOn, 2009ko irailaren 17an egindako bilkuran erabakitakoa betetzeko.

### **EUSKARA IKASTEKO ETA HOBETZEKO LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

Lehenengoa.- Araudiaren xedea.

Araudi honen xedea da udaletik urteko laguntzak ematea Aiarako udalerrian erroldaturik dauden eta bertan bizi diren pertsonen, euskara ikasi edo hobetu dezaten.

Bigarrena.- Bekak emateko araubidea.

Laguntzak emateko, aintzat hartuko da diruz lagun daitekeen gastua, eta araudi honetan haren gainean ezarritako portzentajea emango da.

Diruz lagundu daitekeen gastutzat hartuko da eskoletara joateko matrikularen gastua. Inolaz ere ez da elikadura, ostatu, garraio, material... gasturik diruz lagunduko. Salbuespena Egonaldiak Familia Euskaldunetan programarako ezarritakoa izango da.

Dirulaguntzak izango dira euskara ikasketengatik emango diren laguntzak, honako lege hauetan ezarritakoaren arabera: otsailaren 7ko 3/97 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentziei buruzkoa; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Toki Korporazioen Zerbitzu Erregelamendua, eta aplikatu daitekeen gainerako legeria.

Hirugarrena.- Onuradunak eta haien betebeharrak.

Ondoko betekizunak betetzen dituztenak izango dira laguntza horien onuradunak:

a) Aiarako udalerrian erroldaturik egon, diruz lagundu beharreko ikastaroa hasten den data baino aurreko sei hilabeteetan gutxienez etenik gabe, eta udalerririk horretako biztanle izan.

b) Ikastaroan izena ematerakoan 16 urte baino gehiago edukitzea, eta, Egonaldiak Familia Euskaldunetan programaren kasuan, programak berak ezarritako gutxienezko adina edukitzea parte hartu ahal izateko.

c) Euskara ikasteko matrikulaturik egotea 1. urratsetik 12. urratsera bitarteko maila batean, biak barne, eta matrikula hori euskaltegietan edo euskara norberak bere kontu ikasteko HABEk homologatutako zentroetan egin izana, edo, bestela, udalerririk bakoitzean, Udalaren parte hartzearekin, eratu daitekeen ikaskuntza taldeetako batean egin izana.

d) Barnetegi bat eginez gero, eskolak dira diruz lagunduko diren bakarrak, eta ikaslearen ardurapean egongo dira ostatua eta elikagaiak. Ondorioz, kasu horietan, Udalaririk aurkezten zaion matrikularen frogagirian xehetasun osoz jaso beharko dira irakaskuntzako gastuak eta elikagai eta ostatukoak zeintzuk diren.

e) Hautatutako ikastaroak, gutxienez, euskalduntze edo alfabetatze urrats baten parekoa izango dela bermatu beharko du.

f) Euskaltegietan edo norberak bere kontu euskara ikasteko homologatutako zentroetan egindako ikastaroen kasuan, diruz lagunduko dira bakar-bakarrik ikasturtean zehar gainditu diren euskalduntze urratsak. Horretarako, bakarka aztertuko da horietako bakoitzarentzat lortutako emaitza, beraz, aurkezten diren ziurtagirietan, informazio hori jaso beharko da (gainditu den edo ez) emandako maila bakoitzarentzat. Ziurtagiriek, halaber, emandako urrats bakoitzera ikaslea zein neurritan bertaratu den jakinarazi beharko dute, emandako ordu kopurua eta horietako bakoitzera bertaratuako ordu kopurua xehatuz.

Udalerrian bertan Udalaren parte hartzearekin eratu daitezkeen ikaskuntza taldeen kasuan, beharrezkoa izango da gutxienez eskolen ehuneko 80ra bertaratzeko dirulaguntza eskuratzeko. Ziurtagiriek bertaratzeko orokorrari buruzko informazioa eman beharko dute.

g) Egonaldiak Familia Euskaldunetan programan parte hartzea: gehienez ere, bi hilabeteko egonaldia da diruz lagunduko dena pertsona bakoitzeko, eta egonaldi hori 5 urteko gehieneko epean bete beharko da.

Trascurrido el período de exposición al público sin que se hayan presentado reclamaciones dicha Ordenanza queda definitivamente aprobada, publicándose su texto íntegro en el BOTHA, en cumplimiento de lo acordado en la sesión celebrada el día 17 de septiembre de 2009.

### **ORDENANZA REGULADORA DE LA CONCESION DE AYUDAS PARA EL APRENDIZAJE Y MEJORA DEL EUSKARA**

Primera.- Objeto de la normativa.

El objeto de esta normativa es regular la concesión de las ayudas municipales anuales para el aprendizaje y mejora del euskera a las personas empadronadas residentes en el municipio de Ayala.

Segunda.- Régimen de la concesión de becas.

Para la concesión de las ayudas se tendrá en cuenta el gasto subvencionable concediéndose el porcentaje del mismo establecido en la presente normativa.

Se entenderá como gasto subvencionable el importe de la matrícula referida a las clases, en ningún caso se subvencionará manutención, alojamiento, transporte, material..., salvo lo establecido para el programa Egonaldiak Familia Euskaldunetan.

Las ayudas concedidas por estudios de euskera tendrán carácter de subvención y, en consecuencia, estarán sujetas a la Norma Foral 3/97, de 7 de febrero, de Subvenciones y Transferencias en el Territorio Histórico de Álava, a la Ley General de Subvenciones 38/03, de 17 de noviembre, al reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales y a la legislación complementaria correspondiente.

Tercera.- Los beneficiarios y sus obligaciones.

Podrán ser beneficiarios de estas ayudas las personas que cumplan los siguientes requisitos:

a) Estar empadronado en el municipio de Ayala, desde al menos un periodo no interrumpido de seis meses anteriores a la fecha de inicio del curso a subvencionar, y ser residente en dicho municipio.

b) Ser mayor de 16 años al matricularse en el curso, y en el caso del programa Egonaldiak Familia Euskaldunetan, tener la edad mínima establecida en el propio programa para poder tomar parte.

c) Estar matriculado para el aprendizaje del euskara, del nivel (urratsa) 1 al 12, ambos inclusive, en alguno de los euskaltegis o centros de autoaprendizaje de euskara homologados por HABE, o en los grupos de aprendizaje que se puedan formar en el propio municipio con la participación del Ayuntamiento.

d) En caso de realizar un Barnetegi, se subvencionarán solamente las clases, quedando a cargo del alumno el alojamiento y la manutención. Por lo tanto, en estos casos, en el justificante de matrícula que se presentará al Ayuntamiento deberán ir desglosados los gastos de enseñanza y los de manutención y alojamiento.

e) El curso seleccionado habrá de garantizar la impartición mínima de un nivel (urratsa) del proceso de aprendizaje o alfabetización.

f) En el caso de los cursos realizados en euskaltegis o centros de autoaprendizaje homologados, se subvencionarán solamente los niveles de euskaldunización (urratsak) que hayan sido superados durante el curso, y para ello se examinará individualmente el resultado obtenido en cada uno de ellos, por lo que en los certificados que se presenten habrá de figurar dicha información (superación o no) referentes a cada uno de los niveles (urratsak) impartidos. Los certificados deberán aportar también información relativa a la asistencia referente a cada nivel (urratsa) impartido, detallando horas impartidas y horas asistidas en cada uno de ellos.

En el caso de los grupos de aprendizaje que se puedan formar en el propio municipio con la participación del Ayuntamiento, será necesaria una asistencia mínima del 80 por ciento para poder acceder a la subvención y los certificados deberán aportar información relativa a la asistencia global.

g) Tomar parte en el programa Egonaldiak Familia Euskaldunetan: se subvencionará en total como máximo un tiempo de estancia de dos meses por persona, y dicho tiempo de estancia deberá de cubrirse en un plazo máximo de 5 años.

h) Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga bete-beharrak ordainduta edukitzea.

i) Aiarako Udaleko udal altxortegiko ordainketak egunean edukitzea.

j) Dirulaguntza hauek ematea bateragarria izango da xede berdineko beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskuratzearekin. Eskabidearekin batera, aitortzea aurkeztu beharko da xede berdinerako beste laguntza edo dirulaguntza eskaerarik egin den edo ez argituz. Horiek eskatu badira, egindako eskaeren fotokopia konpultsatuak nahiz kasuan kasuko ebazpenen fotokopia konpultsatuak aurkeztuko dira (Eman den -kopurua adieraziz- /Ez den eman). Bestela, ebazpen zain egotearen aitortzea egin beharko da. Beste dirulaguntza batzuen gaiaren gainean jarraipen espresa egingo da, eta onuradunak eskatzen zaizkion datu guztiak aurkeztu beharko ditu.

k) Eskaera aurkeztean agiritakoren bat falta edo gezurrezkoa bada, eskabideak ez du baliorik edukiko eta erantzukizuna eskatu ahal izango da egin ahal izan diren arau hausteengatik.

Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluan zehaztutako inguruabarretatik bat edo beste betetzen duten pertsonak.

Laugarrena.- Dirulaguntzen zenbatekoa.

a)

- Euskaltegietan edo norberak bere kontu ikasteko HABEK homologatutako zentroetan egindako ikasketak: ehuneko 75.

- Udalerrian bertan ikasteko taldeak, Udalaren parte hartzearekin: ehuneko 75.

- Egonaldiak Familia Euskaldunetan Programako egonaldiak: ehuneko 75.

Ikastaroen kasuan, laguntzaren portzentajeak udal honi urteko dirulaguntza eskatzen zaion urtearen aurreko urteko urritik (hau barne) aipatutako dirulaguntza eskatzen den urteko irailera (hau barne) arte egindako ikastaroaren edo ikastaroen matrikularen kostuari heltzen dio. Udaleko urteko aurrekontuen partidari xede horretarako erabiltzeko moduan dagoen kopurua behar bestekoa izango ez balitz alderatutako eskaera guztiak betetzeko, diru kopurua hainbatu egingo litzateke. Horrela, betekizunak betetzen dituzten eskatzaile guztiak, matrikularen kostuko kasuan kasuko portzentaje proporzional berdina eskuratuko dute laguntza gisa.

b) Euskaltegietan edo norberak bere kontu ikasteko HABEK homologatutako zentroetan egindako ikasketen kasuan, euskalduntze prozesuko urrats bakoitza (1etik 12ra) behin bakarrik lagunduko da diruz eskatzaile bakoitzaren euskalduntze prozesu bakoitzean. Horretarako, eskatzaileak, lehenik eta behin, kasuan kasuko urratsa gainditu duela egiaztatu beharko du. Egonaldiak Familia Euskaldunetan programaren kasuan, gehienez ere, bi hilabeteko egonaldia da diruz lagunduko dena pertsona bakoitzeko, eta egonaldi hori 5 urteko gehieneko epean bete beharko da. Egonaldiak egonaldi bati dagokion dirulaguntza egonaldia egin den urte berdinari dagokion eskaera epean bakarrik egin ahal da.

c) Beste erakunde edo entitate batzuen laguntzak edo dirulaguntzak badaude, kasu bakoitzerako finkatutako portzentajea da emango dena, beste erakunde edo entitate batzuek diruz lagundu ez duten matrikularen kostuari dagokion zatia gainean.

d) Barnetegi batean ikasi izan bada, eskolak dira diruz lagunduko diren bakarrak, eta ikaslearen ardurapean egongo dira ostatua eta elikagaiak.

Bosgarrena.- Aurkeztu beharreko agiriak.

a) Eskabidea, eskatzen diren datu guztiak. Bertan, beste dirulaguntza eskabide batzuk badauden edo ez aitortu beharko da eta, hala badagokio, eskabide horien fotokopia konpultsatuak aurkeztu. Eskabideak erantzuna jaso badu, ebazpenaren (emandako kopurua edo ukapena) fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da. Ebazpena eman zain egonez gero, hori adierazten duen aitortzea egin beharko da.

b) Eskatzailearen Nortasun Agiriaren fotokopia konpultsatua.

h) Hallarse al corriente de pagos de sus obligaciones tributarias con la Hacienda Foral y la Seguridad Social.

i) Estar al corriente de pagos con las arcas municipales del Ayuntamiento de Ayala.

j) La concesión de estas subvenciones será compatible con la obtención de otras subvenciones o ayudas para el mismo fin. Deberá presentarse junto a la solicitud la declaración de existencia o no de otras peticiones de ayuda o subvención para el mismo fin, y si es el caso, habrán de presentarse tanto las fotocopias compulsadas de las solicitudes cursadas como las fotocopias compulsadas de las respectivas resoluciones (Concedida- incluyendo cantidad-/Denegada), o la declaración de que se está a la espera de resolución. Se hará un seguimiento expreso del tema de otras subvenciones y el beneficiario deberá aportar los datos que se le soliciten.

k) La omisión o falsedad de algún dato o documento a presentar en la solicitud, dará lugar a la declaración de nulidad de aquella, además de las responsabilidades en las que se haya podido incurrir.

No podrán tener la condición de beneficiario aquellas personas en las que concorra alguna circunstancia de las contempladas en el art. 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre Ley General de Subvenciones. Cuarta.- Cuantía de las ayudas.

a)

- Estudios realizados en euskaltegis o centros de autoaprendizaje homologados Por HABE: El 75 por ciento.

- Grupos de aprendizaje en el propio municipio con la participación del Ayuntamiento: El 75 por ciento.

- Estancias del Programa Egonaldiak Familia Euskaldunetan: El 75 por ciento.

En el caso de los cursos, el porcentaje de la ayuda se refiere al coste de la matrícula del curso o cursos realizados desde octubre (inclusive) del año anterior al de petición de subvención anual a este Ayuntamiento hasta septiembre (inclusive) del año en que se pida la mencionada subvención. En el caso de que la cantidad disponible en la partida de los presupuestos anuales del Ayuntamiento destinada a tal fin fuera insuficiente para cubrir todas las solicitudes contratadas, se procederá a su distribución proporcional a fin de que todos los solicitantes que cumplan los requisitos reciban en concepto de ayuda el mismo porcentaje proporcional correspondiente del coste de la matrícula.

b) En el caso de estudios realizados en euskaltegis o centros de autoaprendizaje homologados por HABE, cada nivel del proceso de euskaldunización (urratsa) del 1 al 12, solamente se le subvencionará una vez a cada petionario durante todo su proceso de euskaldunización, previa acreditación por parte del petionario de la superación del nivel (urratsa) en cuestión. En el caso del programa Egonaldiak Familia Euskaldunetan, se subvencionará en total como máximo un tiempo de estancia de dos meses por persona, y dicho tiempo de estancia deberá de cubrirse en un plazo máximo de 5 años. La subvención correspondiente a una estancia de Egonaldiak podrá pedirse solamente en el plazo de solicitud correspondiente al mismo año en que se realizó la estancia.

c) En el caso de que existan ayudas o subvenciones de otras instituciones o entidades, se concederá el porcentaje estipulado para cada caso, sobre la parte correspondiente al coste de la matrícula no subvencionada por otras instituciones o entidades.

d) En caso de haber estudiado en un Barnetegi, se subvencionarán solamente el coste de las clases, quedando a cargo del alumno/a el alojamiento y la manutención

Quinta.- Documentos que se deben presentar

a) Impreso de solicitud con todos los datos solicitados, incluyendo declaración sobre la existencia o no de otras peticiones de subvención y, en su caso, fotocopia compulsada de la petición. Si la petición ha recibido respuesta, fotocopia compulsada de la resolución (cantidad concedida o denegación); si se está a la espera de resolución, declaración en tal sentido.

b) Fotocopia compulsada del Documento de Identidad del solicitante.

c) – Euskaltegiako edo norberak bere kontu ikasteko zentro homologatuko ziurtagiri originalak: ikasturtean zehar emandako urrats bakoitzari buruzko hurrengo ezaugarriak adierazi beharko dira: hasiera eta amaiera data; emandako eskola ordu kopurua eta ikaslea horietatik zenbatera bertaratu den, bertaratze portzentajea adieraziz; urratsa gainditu den edo ez, eta matrikularen kostua emandako urrats bakoitza gorabehera xehatua. Barnetegi batera joanez gero, kostua jarraian adieraziko den moduan xehatua aurkeztu beharko da: batetik, eskolen kostu osoa (emandako urrats bakoitzaren kostua xehatuz aldi berean) eta, bestetik, ostatu eta elikagaien kostua.

- Udalaren parte hartzea duten eta udalerrian bertan ikasteko taldeen ziurtagiri originalak: hurrengoak adierazi beharko dira: ikastaroaren hasiera eta amaiera data; emandako urratsak; emandako eskola ordu kopurua eta ikaslea horietatik zenbatera bertaratu den, kasuan kasuko bertaratze portzentajea ere adieraziz, eta matrikularen kostu osoa.

d) Matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen agiria, banku entitate batek emana.

e) Administrazio eskudunak egindako ziurtagiria, Foru Ogasunaren zerga ordainketak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatuz.

Seigarrena.- Eskabideak eta erantsitako agiriak aurkezteko epea.

Eskabideak eta erantsitako agiriak Aiarako Udalean aurkeztu beharko dira urte bakoitzeko abenduaren 1aren eta 30aren artean, eta urteko eskaera bakoitzean aurreko urteko urritik (hau barne) eskaera egiten den urteko irailera (hau barne) arte egindako ikastaroa edo ikastaroak bakarrik sartu ahalko dira. Egonaldiak Familia Euskaldunetan programaren kasuan, dirulaguntza eskatzen den urte berdinan egindako egonaldiatarako bakarrik eskatu ahalko da dirulaguntza.

Aurkeztutako dokumentazioan irregulartasun edo gabeziaren bat sumatuko balitz, hamar eguneko epea izango da Udalak errekerimendua egiten duenetik aurrera hura ebazteko.

Adierazitako epe hori igarota akatsa ebatzi ez bada, artxibatu egingo da eta administrazio baliorik gabe geratuko da.

Zazpigarrena.- Eskabideak aztertu eta ebazpena ematea

Eskabideak Aiarako Udaleko Euskara, Kultura, Gazteria, Hezkuntza eta Kiroletako Informazio Batzordeak aztertu eta baloratuko ditu. Egoki irizten bada, Udalak datu eta argibideak bildu ahalko ditu aurkeztutako agirien gainean, azterketa edo balorazioa osatze aldera.

Behin betiko ebazpena egitea Udaleko alkate-batzarburuari dagokio, Aiarako Udaleko Euskara, Kultura, Gazteria, Hezkuntza eta Kiroletako Informazio Batzordearen irizpenari jarraiki.

Erabakiak laguntza emango edo ukatuko du, eta, ukatzen badu, horretarako edukitako arrazoiak azalduko dira.

Ebazpena dena dela ere, horren aurka egin ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean azaltzen diren kasuetan eta moduan.

Zortzigarrena.- Dirulaguntzen muga.

Dirulaguntzen zenbateko osoak, xede berdinerako beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik eskuratutakoak barne, ezingo du onuradunak egindako ikastaroaren kostua gainditu inolaz ere.

Aiarako Udaleko Euskara, Kultura, Gazteria, Hezkuntza eta Kiroletako Informazio Batzordeak dirulaguntza berraztertu ahalko du beste entitate batzuen laguntza ebazpenak eman eta gero. Finantzazioa neurritz gainekoa izatea galaraziko da.

Gehenez ere 2.000 euroko laguntza finkatzen da pertsona baten euskalduntze prozesu osorako. Horrela, xede honetarako Aiarako Udalaren partetik pertsona batek eskura dezakeen kopuru pilatuak ez du muga hori gaindituko.

Bederatzigarrena.- Kontrola.

Dirulaguntza ematen duen organoak egoki iriztitako administrazio kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu, zertarako eta aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuak benetakoak diren eta laguntza jasotzeko betekizunak gauzatzen diren ala ez egiaztatzeko.

c) – Certificados originales del euskaltegi o centro de autoaprendizaje homologado: deberán indicar las siguientes características referentes a cada nivel (urratsa) impartido durante el curso: fecha de inicio y fin, número de horas lectivas impartidas y asistidas con el correspondiente porcentaje de asistencia, si se ha superado el nivel o no), así como el coste de la matrícula desglosado por cada nivel (urratsa) impartido. En el caso de haber asistido a un barnetegi, el coste deberá de presentarse desglosado de la siguiente manera: por un lado el coste total de las clases (desglosando a su vez el coste de cada nivel (urratsa) impartido), y por otro lado, el coste del alojamiento y manutención.

- Certificados originales de los grupos de aprendizaje en el propio municipio con la participación del Ayuntamiento: deberán indicar la fecha de inicio y fin del curso, niveles (urratsak) impartidos, número de horas lectivas impartidas y asistidas con el correspondiente porcentaje global de asistencia., así como el coste total de la matrícula.

d) Justificante original de entidad bancaria de pago de matrícula.

e) Certificado emitido por la administración competente acreditativo de estar al corriente de los pagos de los impuestos con la Hacienda Foral y con la Seguridad Social.

Sexta.- Plazo de presentación de las solicitudes y documentación anexa.

Las solicitudes y la documentación anexa se deberán presentar en el Ayuntamiento de Ayala entre el 1 y el 30 de diciembre de cada año, y en cada solicitud anual se podrán incluir únicamente el curso o cursos realizados desde octubre (inclusive) del año anterior hasta septiembre (inclusive) del año en que se realiza la solicitud. En el caso del programa Egonaldiak Familia Euskaldunetan, sólo podrá solicitarse subvención para las estancias realizadas durante el mismo año en que se pida la subvención.

Si hubiese sido detectada alguna irregularidad o deficiencia en la documentación presentada se dispondrá de un plazo de 10 días a partir del requerimiento por parte del Ayuntamiento, para la subsanación.

Si agotado dicho plazo la solicitud no ha sido corregida, pasará a ser archivada y quedará sin valor administrativo.

Séptima.- Estudio y resolución de las solicitudes.

Las solicitudes serán examinadas y valoradas por la Comisión Informativa de Euskara, Cultura, Juventud, Educación y Deportes del Ayuntamiento de Ayala. Si se estima oportuno, el ayuntamiento podrá recabar datos o aclaraciones sobre las documentaciones presentadas para completar su estudio o valoración.

Corresponderá la Resolución definitiva al Alcalde-Presidente de la corporación en función del dictamen de la Comisión Informativa de Euskara, Cultura, Juventud, Educación y Deportes del Ayuntamiento de Ayala.

El acuerdo concederá o denegará la ayuda, en cuyo caso incluirá la motivación.

Sea cual fuere al resolución, ésta podrá ser impugnada en los casos y en la forma establecidas por la ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Octava.- Límite de la subvención.

El importe total de las subvenciones incluidas las obtenidas de otras entidades públicas o privadas para el mismo fin, en ningún caso podrá superar el coste del curso realizado por el beneficiario.

La Comisión Informativa de Euskara, Cultura, Juventud, Educación y Deportes del Ayuntamiento de Ayala podrá revisar la subvención aprobada una vez concedida la resolución de ayudas de otras entidades, impidiendo cualquier tipo de sobrefinanciación.

Se establece una ayuda máxima de 2000 euros para todo el proceso de euskaldunización de una persona, de tal manera que el montante acumulado que puede percibir una persona para este fin por parte del Ayuntamiento de Ayala no superará este límite.

Novena.- Control.

El órgano concedente podrá realizar los controles administrativos e inspecciones que considere oportunos a fin de comprobar la veracidad de los datos consignados en la documentación presentada, así como en el cumplimiento de los requisitos para la percepción de

Onuradunak ikuskapen horretan laguntzeko betebeharra izango du, eskatzen zaizkion datuak emanez.

Hamargarrena.- Dirulaguntza galtzea.

Laguntzen onuradun direnek beherago adieraziko diren baldintzetatik bat edo beste urratzen badute, espedienteari ekin egingo zaio jasotako kopuruak itzul daitezen. Kopuru horiekin batera, dirulaguntza ordaindu zen unetik sortutako berandutza korrituak ere ordaindu beharko dira.

Dirulaguntzaren galera espedientea irekitzea ekarriko duten arrazoiak hurrengoak izango dira:

a) Aurkeztutako eskaera edo dokumentazioan adierazitako datuak faltatzea.

b) Laguntzaren zenbatekoa, bakarka edo beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, onuradunak garatu beharreko diruz lagundutako jardueraren kostu osoa gainditzea.

c) Aiarako Udalari beste dirulaguntza publiko edo pribatu batzuk eskuratu dituela ez jakinaraztea, Aiarako Udalak kasuan kasuko likidazioa onetsita badu ere.

d) Eta, orokorrean, ordenantza honetan ezarritako betebeharretatik edozein urratzea.

Hamaikagarrena.- Arau haustek eta zigorrak

Oinarri hauetan ezarritako betekizunetatik edozein urratzeak Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren V. Tituluan adierazitako arau hausteen erregimenean eta haren administrazio zehapenean sartzea ekarriko du, emandako laguntza galtzearekin batera.

Hamabigarrena.- Garapena, interpretazioa eta hedapena.

Aiarako Udaleko alkatetzak kasuan kasuko ebazpenak egingo ditu, ordenantza hau garatze aldera.

Ordenantza honetan ager daitekeen edozein interpretazio zalantza alkatetzak ebatziko du, Aiarako Udaleko Euskara, Kultura, Gazteria, Hezkuntza eta Kiroletako Informazio Batzordearen irizpenari jarraiki.

Ordenantza hau indarrean jarriko da testua, oso-osorik, ALHAOn argitaratu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeko 65.2 artikuluan ezarritako hamabost eguneko epea igarota.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

AIARAn, 2009ko azaroaren 2an.- Alkatea, AINHOA CAMPO ARENAZA.

la ayuda. El beneficiario tendrá la obligación de colaborar en dicha inspección, proporcionando los datos requeridos.

Décima.- Pérdida de la Subvención.

En el supuesto en que los beneficiarios de las ayudas incumplieran cualquiera de las condiciones que más abajo se detallan se iniciará un expediente para el reintegro de las cantidades percibidas, más el interés de demora desde el momento del pago de la subvención.

Los supuestos en que se incoará la apertura del expediente de pérdida de la subvención son:

a) El falseamiento de los datos formulados por la solicitud o en la documentación aportada.

b) Que el importe de la ayuda, asiladamente o en concurrencia con otras ayudas públicas o privadas, supere el coste de la actividad subvencionada desarrollada por el beneficiario.

c) La no comunicación al Ayuntamiento de Ayala de la concesión de otras subvenciones públicas o privadas, aunque ya se hubiera aprobado por el Ayuntamiento de Ayala la liquidación oportuna.

d) Y, en general, el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en la presente ordenanza.

Undécima.- Infracciones y sanciones.

El incumplimiento de cualquiera de los requisitos establecidos en estas bases supondrá, además de la pérdida de la ayuda concedida, la incurso en el régimen de infracciones y sus correspondientes sanciones administrativas expuestas en el Título V de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Duodécima.- Desarrollo, interpretación y difusión.

La alcaldía del Ayuntamiento de Ayala dictará las resoluciones oportunas para el desarrollo de la presente ordenanza.

Cualquier posible duda de interpretación de esta ordenanza será resuelta por la alcaldía previo dictamen de la Comisión Informativa de Euskara, Cultura, Juventud, Educación y Deportes del Ayuntamiento de Ayala.

La presente ordenanza entrará en vigor una vez publicado el texto íntegro en el BOTHA y transcurrido el plazo de 15 días establecido en el art. 65.2 de la Ley 7/85 Reguladora de Bases del Régimen Local.

Lo que se hace público para general conocimiento.

AYALA, a 2 de noviembre de 2009.- La Alcaldesa, AINHOA CAMPO ARENAZA.